

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

399

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 19koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez 2019. urterako ezohiko dirulaguntzak ematen eta ukatzen baitzaizkie zenbait enpresa eta entitate pribaturi. Dirulaguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 1eko Ebazpenaren bidez, 2019. urtean enpresei eta entitate pribatuei ezohiko dirulaguntzak emateko deialdia egin zen (2019ko urriaren 8ko EHAA, 191. zk.). Dirulaguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko ziren, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin zitzaizen.

Ebazpen horren 12.1 artikuluan ezartzen denez, eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten batez ebatziko dira, horretarako izendatutako Hautaketa Batzordeak proposatuta. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Artikulu horren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko ebazpen honetan zehazten dira dirulaguntza eman eta ukatu zaien enpresak eta entitateak eta esleitu zaizkien diru-zenbatekoak eta, onuradunen batek uko eginez gero, ordezeko izango diren entitateak.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinean dauden enpresa eta entitate pribatuei dirulaguntzak ematea, bakoitzari izendatu zaion diru-zenbatekoaz. Guztira, ehun eta hogeita hamasei mila ehun eta hogeita hemeretzi euro eta laurogeita hemezortzi zentimo eman dira (136.139,98).

Bigarrena.— Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuei dirulaguntzak ukatzea, ukapenaren arrazoia esanez.

Hirugarrena.— Entitate eta enpresei gogorarazten zaie ezen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 1eko Ebazpenaren 6.2 artikulua aplikatuz, laguntzak jasotzen dituzten entitateek eta enpresek Lankidetzak Erakunde aitorpena eskatu beharko dutela, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakundeak» aitorpena arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Laugarrena.— Halaber, entitate eta enpresei gogorarazten zaie Ebazpen honetan araututako dirulaguntzak Europako Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuko 107 eta 108 artikulua minimis laguntzei aplikatzeko 1407/2013 Europako Batzordearen Erregelamenduan adierazitakoaren arabera arautuko direla (2013-12-24ko EBAO, L 352. zk.).

Bosgarrena.— Laguntzak jasotzen dituzten entitateek eta enpresek 15 egun izango dituzte, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, dirulaguntzei uko egiteko, hala ezarrita baitago Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko urriaren 1eko Ebazpenaren 13.a) artikuluan.

Seigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Zazpigarrena.— Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hilabete biko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluen 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 19a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

2020ko urtarilaren 28a, asteartea

I. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNAK

Espediente-zenbakia	Eskatzailea	Zenbatekoa (eurotan)
025-0039206	Ikertalde Grupo Consultor, S.A.	3.500,00
001-0039206	Ipartek Servicios Informáticos, S. Coop.	4.250,00
020-0039206	Fundación Novia Salcedo	6.582,40
022-0039206	Aurman, S.A.	2.950,00
021-0039206	Plastigaur, S.A.	5.750,00
007-0039206	Asociación Nacional de Hogares para Niños Privados de Ambiente Familiar- Nuevo Futuro Álava	6.004,40
018-0039206	Ingartek Consulting, S.L.	4.500,00
017-0039206	Ikaslan Asoc. de Directores de Centros FP Gipuzkoa	6.582,40
024-0039206	Casa Maristas San Jose	3.950,00
004-0039206	Orioko Herri Ikastola Sociedad Cooperativa	6.079,04
006-0039206	Orereta Ikastola Koop. E.	6.330,72
010-0039206	Biele, S.A.	7.250,00
023-0039206	Galemys S. L.	2.175,00
009-0039206	Fundacion de Trabajadores de la Siderurgia Integral	5.614,40
011-0039206	Salva Industrial, S.L.	6.750,00
015-0039206	Asesoramiento y Gestión Asistencial SL	3.600,00
013-0039206	Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea UZEI	8.663,20
003-0039206	Athlon S.Coop.	3.082,32
019-0039206	Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola S. Coop.	6.171,00
026-0039206	Asociacion Pedagógica Mendibil	7.200,00
016-0039206	Zubi Zaharra S. Coop.	8.565,60
005-0039206	Ilustre Colegio de Abogados de Vizcaya	10.000,00
008-0039206	Sistemas y Tratamientos Automáticos SL	3.910,00
002-0039206	Escuelas Internacionales para la Educación y el Desarrollo EIDE	3.075,00
014-0039206	Industrias Técnicas de la Espuma, S.L.	3.604,50
Guztira		136.139,98

II. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA UKATU ZAIEN ENPRESAK ETA ENTITATEAK

Espediente-zenbakia	Eskatzailea	Arrazoia
012-0039206	Asociacion Deportiva y Cultural "Tximeleta"	Eskaeran atzera egitea